

HARKAITZ CANO

AZKEN AURREKO MANIFESTUA

~~La fin du langage~~



72

Hitzatzea: ANJEL LERTXUNDI





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

HARKAITZ CANO

azken aurreko manifestua

*Gogorazio solteak azken aurreko mohikano
baskoaz eta haren manifestuaz*

Anjel Lertxundi

La fin du language:

Ismael Iglesias

LEHEN MUGIMENDUA

Azken aurreko manifestua idatzi nahian zuzentzaile ortografikoarekin borrokan

Aldarri egin beharrean gaude aldarri, hitzak eta aditz taulak aldarrikatzeko sasoian oraindik

Manifesté bat idatzi nahi nuke
baina ez dit unte sistemak.

Ezin dut ezetz idatzi:

ez guztiak ez bihurtzen dizkit etengabe sistemak,
gurea hizkuntza extinto bat izatera behartu nahi balu bezala.

Manifestua manifesté

kaltea ez da handia

atzoko berbera da-eta, egia esan...

Como ya manifesté ayer

Como ya manifesté antes de ayer

Como ya venía mani festan do el año pasado...

Iraganeko izatera derrigortzen du zuzentzaileak manifestu hau.

Manifesté bat idatzi

nazi nube vayan ez dit unte,

Gurina eta mermelada zabaltzen dizkit bizkarrean,

eta nik ez diot utzi nahi, baina hala ere,

unten, unten idaztarazten dit nahiz eta ez diodan utzi nahi,

“Baina” hitza idazten dudanean ez dit unte

“vayan” “vayan” zuzentzen dit etengabe,

vayan nora joatea nahi du honek?

Nola ausartzen da “enroñen izaera”

(“neronen” idazten ere ez dit uzten, enroñen zuzentzen dit sasikume
halakoak neronen izaera herdoilduz!)

Bidali egiten nau ni eta gu bidali egiten gayusted:

“vayan, vayan, desalojen el recinto”.

“Vayan, guk ez dugu ezer egin eta...!”

Zuek sinets al dezakezue hau, posible oteé
(oteatzera behartzen nau orain horizontea zuzentzaile madarikatuak,
ba ote, bai oteé, baietz baietz oteatuko dudala oteatu beharrekoa!
Origen, barka, horixe gai garela gu ere oteatzeko
urruneko lurraldeak...
vayan ex dudala bizi nahi isolatuta, vayan
“ez dudala ere ex dit unten idazten”
eta dúdala idaztera behartzen nau dudala-ren ordez,
eta ondo dago la duda, eta zalantzak beharrezkoak dira badakit,
baina heldulekuren bat ere bai.
Suez ez duzue uste? Suez ez zaudete ados? Nola Suez?
Nondik atera da Suez
Kanala da Suez, kanala da
ETB2
dúdala zio
ete be vi
cio. Cío tío, vicio.
baina nik ez nuen idatzi nahi Suez,
Suezen
Egipton dago euskararen etorkizuna, Alá?
(Yala Yala Ramala!)
eta nik, nik idatzi nahi nuez!
(Eta nuez ez, baizik eta nuen...)
Nondik atera da intxaurra orain,
Intxaurrondo guztiak ez dira berdinak,
baina intxaurra idazten ere ez dit
unten queso
“¿quiso quizá usted decir instaura?”
zuzentzen dit intxaurra
(“¿Instaura un nuevo régimen?”).
Intxaurraren le cuan do el grajo vuela bajo
Hace un frío del carajo...

Horrela ezin da joan norberak nahi duen
lecura la gripe lecura la tos.

(izan ere "lekura" hitza josita ere ez dit idazten unten,
ezpada lectura edo locura, hitz interesgarriak biak, baina... bai oteé
posible?

¡Lekura locura todo la gripe la tos!

Hau eromena da!

"No sé encontró ninguna palabra relacionada con su búsqueda

¿quiso usted quizás decir romería?"

Manifestu manifesté manifiesta

Manifes dubi dubi dá

bat idatzi nazi nube dadaistek

egien zuten bésala

baina ex dit unten sistemak

("¡Bésala!", agindu bat da, itxuraz: bésala eta ex,

muxukatu zure bikote izandakoa, beraz,

"¡besa a tu ex!",

berandu izan aurretik, hitzak eta zu zerorri zimurtu baino lehen!

Ahorca zen dit zuzentzaileak

(barka: aholkatzen dit esan nahi nuen),

bezalaren ordeaz, bésala,

Zergatik musukatu behar dut inor, hemen jendaurrean,

gogoak ematen badit izango da hori!)

Como ya manifesté ayer

Como ya manifesté antes de ayer

Como ya venía mani festan do el año pasado...

Azken aurreko manifestua idatzi nahian

zuzentzaile ortografikoarekin borrokan

Edo hobe esan:

asquean-arre-eco

manifiesto ida-sí

nadan

dulce-baile

ortográficoarlequín
borro tan...

Aldarri egin beharrean gaude aldarri,
hitzak eta aditz taulak aldarrikatzeko
sasoian oraindik.

(Aldair en fin berrean laude,
aldair, hincas eta ADIF tábula calda-rica checo
safoxón ya, hora indica...)

“Houston arazo bat daukagu!
Deskonektatu autozuzenketa.
Autozuzenketa deskonektatua izan da”.

Autozuzenketa eta buruzidioa deskonektatuak izan dira.

BIGARREN MUGIMENDUA

ZEIN DA INGELESEZ IKASI ZENUTEN LEHEN HITZA?

Flashback.

Ez, badakit, nirea ere ez zen izan flashback,
baina zinemarekin du zerikusia.

Pentsatu denok, pentsatu guztiok.

Saiatu gogoratzen.

Ez esan, ez daukazue aitortu beharrik,

hau ez da mentalismo ariketa bat,

(tira, apur bat bai,

manifestu guztiak dira mentalismo ariketa bat),

hau azken aurreko manifestu bat da,

baina pentsatu denok une batez zein izan zen

ingelesez ikasi zenuten lehen hitz, lehen esamolde hura.

Nirea THE END izan zen, ziur aski.

Oso modu pedagogikoan ikasi nuen.

Bakeroen film baten amaieran agertzen zen,

edo Tarzanen filmaren amaieran agertzen zen,

eta film pare bat ikusi ondoren

berehala ulertzen zenuen zer esan nahi zuen

THE END horrek:

THE ENDEk esan nahi zuen, THE END.

Akabo fandangoa.

Has gaitezen, beraz, bukaeratik.

Zein da euskaraz ahaztu zenuen azken hitza?

Zein da euskarak ahaztuko duen azken hitza?

Zein izango da euskarak galduko duen azken hitza?

Hitz fosila, hitz -ziur- mailegatua, hitz lapurtua,

beste hizkuntza batean ezkutatua,

adoptatua, kamuflatua?

Zein izango da hitz-Asterix-galiarra,
hitz heroiko gu gabeko gutarra,
hitz genetikoki pribilegiatua
iraupenarekn bedeinkatua?

“Por lo tanto, habría que plantearlo de la siguiente manera,
¿cuál fue la última palabra en vasco que olvidaste,
la que se resistió, la última palabra que no tenía
otra palabra con la que conversar?”

Ulertzen da ideia, ezta?

Hizkuntza bat noiz desagertzen den, alegia,
azken hiztuna desagertzen den unean
ala bat bakarra geratzen denean
eta bakar horrek

ezin dionean bere buruari baino hitz egin?

Nortasun destolestua eduki behar al du

hizkuntza baten azken hiztunak

hizkuntza egon dadin bizirik eta segi dezan

bere buruarekin hizketan?

Hipotesia baiezkoa bada, hizkuntzaren biziraupena
gaixotasunarekin legoke lotua.

Zenbaitetik diote “gaupasa” izango dela desagertuko azken euskal hitza.
Zenbaitetik diote “akelarre” izango dela desagertuko den azken euskal
hitza.

Zenbaitetik diote “zulo” izango dela desagertuko den azken euskal hitza.
(Este último párrafo no hay manera de entenderlo: Algunos dicen que
“órdago” es una palabra vasca en desuso y que fue la última que
desapareció; resulta difícil confirmarlo dado que ahora la estamos
usando, aunque no sabemos para qué sirve un órdago).

Gauza bat segurua da: desagertuko den azken hitza ez dela izango guk
irautea nahi genukeen azkena.

Eta geratuko dela hitzen bat desagertu gabe,
baina baita esanahirik gabe ere.

Politikoki zuzena ez da izango esatea, baina
hizkuntzek ere
borrokatzen dute haien artean,
hiztunek erabiltzen dituzte euren borroketarako
hizkuntzak.

ZEIN DA ITALIERAZ IKASI ZENUEN LEHEN HITZA?

Pentsatu denok, pentsatu guztiok. Saiatu gogoratzen.

Ez esan, ez daukazue aitortu beharrik,

hau ez da mentalismo ariketa bat,

(tira, apur bat bai,

manifestu guztiak dira mentalismo ariketa);

ez da gehiegi pentsatu behar,

lau urte dituzu edo zortzi,

uda da, bota burura datorkizun lehena:

pizza, Paparazzi, mamma mia?

Egia, zuri Albinoni gustatzen zaizu agian eta adagio izan zen ikasi

zenuen lehena edo da capo edo prestissimo edo molto vivace edo

bandiera rossa edo avanti popolo edo

“Ecco, Cappuccino!”. Edo “Eppur, si muove”.

Hitz eder askoak ditu italierak, plazera da ikastea,

turista izatea italiarren eremua, baina gurean?

Bai, zuk ere ezagutu zenuen

Antonella izeneko beraneante bat Zarautzen uda batez,

eta hari muxu eman nahi izan zenionean

hark esandako hitza oroitzen duzu: “Dopo, dopo...”

Ez dena “piano piano si va lontano”, baina ia

Hizkuntza bat, gero datorren zerbaiten promesa delako.

“Adesso non, dopo!”.

Eta pena da euskara italiera ez izatea,

ze hala balitz,

egin ahalko genuke opera famatuen

izenburuen bidez euskara ikasteko

metodo oso eraginkor bat.

Eta izenburua litzateke, demagun:

“ZUK JAKIN GABE JADA BADAKIZUN ITALIERA GUZTIA”.

Interesgarria litzateke ama hizkuntza ez
beste hizkuntza guztietan ikasi dituzun
lehen hitzekin egindako zure balizko autobiografia.

Etxekotu dituzun hitz arrotz horiekin,
adopzioan hartu dituzunekin.

Nahiz eta ez egon ama hizkuntzarik:

hizkuntza bastardoak dira guztiak, sasikoak,
ama hizkuntza marru eta lantuen litzateke,
oihuen eta fonema murduskatuena,
silaba hau-

tsiena.

Hizkuntza guztiak dira amaorde-hizkuntza,

“no hay lengua madre, todas las lenguas son madrastras”,

dio Cristina Rivera Garzak.

ZEIN DA ALEMANEZ IKASI ZENUEN LEHEN HITZA?

(Ez du balio Kronenburg 1664 esateak)

Rot Army. Flughafen. Arbeit?

Pintada hori: Natzis raus?

Ai, pena da euskara alemana ez izatea, ze hala izan balitz

Quentin Tarantinok nazien filmak egingo zituzkeen euskaraz.

ZEIN DA PORTUGESEZ IKASI ZENUEN LEHEN HITZA?

Pentsatu denok, pentsatu guztiok. Saiatu gogoratzen.

Ez esan, ez daukazue aitortu beharrik,

hau ez da mentalismo ariketa bat,

-tira, apur bat bai,

manifestu guztiak dira mentalismo ariketa...-,

Hau, ia zalantzarik gabe dakit,

saudade izan zela.

Edo as noites agian,
as noites da radio Lisboa.

Ikasi dugun lehen hitza beti da biografia eta ia beti da gaztaro.

Pena da euskara portugesa ez izatea, ze kasu horretan Angolako talderik ezagunena zatekeen Itoiz eta Joseba Sarrionandia Portoko ardo destileria guztien jabe.

Zein da Europako ia hizkuntza guztietan dakizun hitza?

Zein da ia denok ia hizkuntza guztietan dakigun hitza?

Politxi. Police. Polizei. Politsei. Politzia. Policija. Poliisi. Politie. Politiet.
Polis. Politsiya. Polisi. Pulis. Lapolis. Polikanoi. Puliziya.

Hungarieraz: rendorseg.

Beti dago salbuespenen bat.

Googleatu egin dut, jakina:

How to say police in european languages

euskarazkoa ere badakar

eta google-en ustez ez da, pentsa zitekeenaren kontra, “polizia”,

baizik eta hara, beste hau:

“poliziaren!”.

Bizia da Google,

konjugatzailea eta jostaria,

aditz subjuntibo berriak asma genitzake

Google-i esker:

“Ojalá, ojalá, ojalá a mí no me poiliciaren jamás”.

ZEIN DA GAZTELANIAZ IKASI ZENUEN LEHEN HITZA?

Pentsatu denok, pentsatu guztiok. Saiatu gogoratzen.

Ez esan, ez daukazue aitortu beharrik,

hau ez da mentalismo ariketa bat,

-tira, apur bat bai,

manifestu guztiak dira mentalismo ariketa-,
Hau zailagoa dela diozu?
Begiak itxi beharra dago eta ariketa barnerakoiago bat egin.
Ea, ba. Saia gaitzen. Proposamenik?
Ez pentsatu gehiegi, bota burura datorkizuen lehena.
(pelota, pato, balón, kanika, fútbolin?).

Pena da euskara gaztelania ez izatea,
ze kasu horretan gaztelania ikastea
aski litzateke euskara ikasteko, ezta?

ZEIN DA FRANTSESEZ IKASI ZENUTEN LEHEN HITZA?

Oui.

Quai de la gare da agian?

Quai-de-la-gare-geltokiaren-gainetik-iragaiten-diren-altzeiru-bortitzak
hortzez-mugatutzat-jo-ditzazkezunean
da frantsesez ikasi zenuen lehen hitz luzea?

Orduan badakit

70. hamarkadan edo lehenago Hegoaldean jaioa zarela.

Bayonne-17-panopetik... diozu?

Ados Hegoaldean eta laurogeietan jaioa zarela badakit.

Tête de la course?

Ados, badakit

txirrindulari zalea zarela.

Ordu erdi emango banizue,
esango zenizkidakete
ehun hitz italieraz,
ehun hitz alemanieraz,
ehun hitz portugesez?

Obrigado.

HIRUGARREN MUGIMENDUA

Hau da nire proposamena: 100 hitz.

Hau da manifestu honen eskaera: 100 hitz.

Ehun hitz, baina denok.

Ehun hitz adostuak, eztabaidatuak, bozkatuak.

Ehun hitz, gutxienez.

Ehun hitz desfibrilatzen hasteko.

Ehun hitz desengrasatzen hasteko.

Ehun hitz edo ehun esamolde eraginkor.

Ehun hitz eta ehun kontestu.

Asquean-arre-eco

manifiesto ida-sí

nadan

dulce-baile

ortográficoarlequín

borro tan

Aldarri egin beharrea gaude aldarri, hitzak eta aditz taulak aldarrikatzeko sasoian oraindik

(Aldair en fin berrean laude,

aldair, hincas eta ADIF tábula calda-rica checo

safoxón ya, hora indica...)

Ehun hitz ikasi urtebetean, euskaraz.

Derrigorrez?

Bai, de rigor. “Mira, ya has aprendido una: la palabra derrigor”.

Zenbat gauza egin behar diren derrigorrez,

bada, bat gehiago, baina hau dibertitua da.

ZUK JAKIN GABE JADA BADAIZUN EUSKARA GUZTIA.
Izeneko metodoarekin has gaitezke.

Barkatu, baina kalean topatzen dudan jende gehienarekin
moldatzeko ez ditut ehun baino gehiago behar.

Okinarekin goizeroko transakzioan ez dut
Kanten inperatibo kategorikoari buruz hitz egin nahi,
baina aski dira ehun hitz okinarekin mintzatzeko.
Zenbat da? "Pues a mí zenbat-da me suena a lambada..."

Ba hobe, dantzan dena errazagoa da,
nire okinari regetoia gustatzen zaio
eta ez euskararen maratoia.

¡TODO EL EUSKERA QUE SABE SIN SABERLO, SEÑOR PANADERO!

Euskara ez da galduko dakigunok hitz egiten ez dugulako, ez dakitenek
ehun hitz eder ikasteari uko egin diotelako baizik.

Kortesia eta edukazio ona ez dira galduko euskara dakigunok hitz
egiten ez dugulako, ez dakitenek ehun hitz eder ikasteari uko egin
diotelako baizik.

Politesse, bi eserekin, datsegit. Frantsesez eraginkorragoa da.
Esadazu zein hitz itzultzeari egiten diozun uko
eta esango dizut nor zaren.

100 hitz.

Aurten ehun eta datorren urtean beste ehun
(tira: hau agian hautazkoa da,
ikusiko dugu nola geratzen diren indar orekak,
nork irabazten dituen hurrengo hauteskundeak...).

Ehun hitz edo esamolde.

Astero bi dira.

Cafe Baquék edo Fortalezak zabalduko ditu lau haizetara goizero, Irratsaio eta albistegietan derrigor esan beharko dute erdal kazetari eta esatariek esaldi hori beren saioan (Asteko esaldia!), modua topatu beharko dute gutxienez behin kaltzadorearekin sartzeko, Axularren gisara, modu pedagogiko batean, sinonimoekin: “La frase de la semana es...”

Hori bai litzatekeela benetako konpromisoa.

Entzun nahi dut euskaraz ez dakitenek euskaraz dakizkiten hitz apur horiek zer poema, zer autobiografia, zer nobela ezkututzen duten...
Bakan eta urri diren hitz horiek zergatik zaizkien erabilgarri edo erakargarri edo, zergatik ez, arrotz eta mespretxagarri.

Ehun hitz gutxi dira.

Ehun hitz asko dira.

Ehun hitz izan daitezke anitz.

Ehun hitz oraingoz.

Ehun hitzekin ehundu daiteke hizkuntza bat.

Denok ehun hitz berberak?

Akaso ez.

Ehun hitz, ofizioaren arabera.

Ehun hitz, adinaren arabera.

Ehun hitz horien artean,
hitz tronkalak eta hautazkoak.

Ehun hitz estrategiko.

Ehun hitz, agian jada badakizkizunak:

Renault LAGUNA...

(zu ito egingo zinateke auto horretan,

baina niretzat kopilotodun auto
bat erostearen pare da!).

Agian ez dituzu ehun hitz ikasi behar ere.

Zulo zer den baldin badakizu eta ama zer den baldin badakizu,
aise ikasiko duzu zer den amazulo.

Tres por uno, amazulo.

Gutxi? Sí, como la ropa cara.

Asko? Sí, como el miedo y el asco en Las Vegas.

Mary Shelleyk beste hiru ekarri ditu:

Adiskideak, ogia, ardoa.

Frankenstein doktoreak sortzen duen izaki berri horrek
esaten dituen lehen hiru hitzak.

Adiskideak, ogia, ardoa.

Orden horretan. Ez da hasiera txarra.

97 geratuko litzaizkiguke Mary Shelleyrekin hasiko bagina.

Euskal zinegileak ari dira
nomenklatura zabaltzen,
itzulpenari uko egiten,
ahoskeran buruhaustea sortu arren
bati baino gehiagori:

Flores esaten ikasi dute:

LOREAK LÓREAC eta LOREÁC.

Ciervo esaten ikasi dute: Oreína, Oreiná, Oh, Reina!

Tres en uno, amazulo.

Ez dugu nahi gure hizkuntza kosifikatu edo hotsifikatu dezaten:

“Baso bat ur mesedez?” eskaeraren aurrean

“¿perdón?” erantzuten digutenean

“paredón” entzuten dugu guk,

ez dugu nahi hizkuntza (mezularia)
mezu bilaka dezaten,
hotsifikatu egiten dute,
esanahia ukatzen.
Filmetan bezala,
taxista-afganiar-jeneralean-terrorista
bere hizkuntzan mintzo denean bezala,
soilik azpigitulatu dute:
“HABLA EN SU IDIOMA...”
Hotsifikatu egiten dute hizkuntza.

Ehun hitz,
bakoitzak berea defenda dezala parlamentuan.
Ehun hitz,
bakoitzak berea defenda dezala pulamentuan.
Nik nirea eramango dut,
baina ez gaur: etzidamu.
Etzidamu eramango dudala nirea, alegia,
eta hitza ere hori berbera izango dela:
etzidamu.
Hirukoitza da hitza:
etzi eta damu eta etzidamu,
kanabera bakarrean hiru amu.
Edozer egiten duzula ere,
damutu egingo zaizu
hiru egun barru.

Ez daukagu denak orain aukeratu beharrik,
baina presa pixka bat badugu:
euskal hiztunak zulo beltzak topatzen baititu etengabe.
Bete behar dira gunek horiek urgente.

Gure herrian oinez joan ahala,
inolako indarririk ez duen grabitate eremuetan
erortzen gara.

Exiliatu intermitentearen fenomenoa,
sarritan gertatzen da,
nazkatu gara horretaz ere,
kasu, aireportu eta hegazkinetan,
hoteletan, administrazio kontseiluetan,
modernitatearekin, bidaiarekin, ez-lekuekin
lotutako erabaki guneetan,
sinbolikoki zein ekonomikoki garrantzitsu
diren lekuetan.

Euskal hiztunak badaki, adibidez,
hainbat esaldi sekula euskaraz entzun gabe hilko dela.
Kasu: “El equipaje de mano puede haberse desplazado” edo
“¿Ha consumido usted algo del minibar?” (“No, el minibar me ha
consumido a mí”). Kezkagarria da hori.
Iberiaiko lurreko langile batek
Loiun ekipajea pisatzean galdetuko baligu
“Aldean badaramazu maletarik batere?”
libidoa disparatuko litzaiguke,
“izan ditzagun seme-alabak orain eta hemen!”,
gurekin ezkontzeko erregutuko genioke.
Ba ote dakite Iberiaiko erdal hiztunek
zein ahulak eta konbentzitzen errazak garen?
Jakin dezatela,
esan egingo diegu,
hemen ari gara jada esaten:
Ehun hitzak boteretsuak dira!
Ehun spot gure zinegileentzat.
Ehun biñeta egiteko lana
gure marrazkilari zein diseinatzaileentzat.
Ehun haiku kaiku.
Ehun kartel erraldoi.
Cafés Fortaleza,
Bake Kafea,
irradi, telebista,

meza medioen bidez
hedatuko ditugu urtebetean
ehun hitz.

Ehun hitz.

Kultura sailari ere
utziko diogu lan apur bat.
Kultura sailari utziko diogu,
dirua jar dezan
eta trukean domina jar diezaion
bere buruari.

Ehun hitz.

Azken hitzaren bila eta lehenaren irrikaz,
ehun hitz.

Hiritarren oinarrizko eskubideen kartan
jarri beharreko puntua:
ehule izan ala ez izan.
Eztabaida bat, ehun hitz.
Ehun hitz praktiko.
Ehun hitz poetiko.
Ehun hitz proteiko
Ehun hitz sarea ehuntzeko.

Ehun hitzak.

Ditzagun ehun.

GOGORAZIO SOLTEAK AZKEN AURREKO MOHIKANO BASKOAZ ETA HAREN MANIFESTUAZ

Anjel Lertxundi

Gure autoreak arriskuan ikusten du guztiz estimatzen duen ondasun bat. Idazten hasi zenean baino lehenagotik ere bizi zuen obsesioa du huraxe zaindu beharra. Ez bere obsesioa soilik: gehien maite duen jendea ere bat dator gure autorearen kezkarekin. Haiei ere ez zaie gustatzen ondasunaren inguruan ikusten dutena. Ez orduan, orain ere ez. Hargatik, gure autoreak aspalditik du ikuspegi berri bat eransteke gogoia ondasunaren inguruko tabu, ikusezin eta informazio-falta zahar bati, eta bide batez, ahal balu, ahalegin guztia egingo luke marka berri bat jartzen debetari. Gure autorea inoiz egon izan da ibai-ondoko etxeen hormek daukaten uraren marra ilunari begira. Uholdeen ondoren, obra handiak egin zituzten. Ordutik ura ez da marraraino iritsi.

Antzeko muga bateraino iristen da ondasunari buruzko debatearen marra ere. Gure idazleak ez du marka ondu nahi, aitzitik baizik. Letorkeena aurreikusi nahiko luke. Erreferentzia izan. Aportazio originala egin ondasun preziatuaren inguruko debetari, ondasunaren gaineko tabu eta informazio-faltak ez dezan marratik gora egin...

Esaten ari ez dira ba itsasoa gora eta gora datorrela?

Askotarikoak izan ohi dira poetek-eta gizarteko auziei buruz idazteko arrazoiak. Gure autoreak izan ditu lehen ere halako kezka bati edo besteari ekiteko tentazioak. Batez ere, hainbeste kezkatzen duen obsesioaz mintzatu nahi luke. Baina idazten hasteko bulkada falta.

Kixotek, ordea, aspaldi abisatu zigun: pertsona baten “bulkadak ez dira bere esku egoten”, eta, halako batean, ondo pentsatu eta gero —edo txiripa hutsez—, gure artistak bere posizioa adieraztea erabaki zuen eta, ordutik, ez du etsi eta ez du etsi buruan zerabiltzan ideiei indar dialektikoa, forma estetikoa eman arte.

Halakoxea Harkaitz Canoren iazko bulkada Uxue Alberdik hitzaldi bat eskatu zionean Elgoibarreko Euskara ala Ezkara ekitaldirako. Bizitzan zehar buelta asko emana zion, noski baino noskiago, euskararen eta euskalduntasunaren superbibentzia gaiari, baina hartaz idazten hasterainokoa, ez. Uxue Alberdik egindako proposamenaren formulazioa —euskara ala ez gara— oso iradokitzailea egin zitzaion, ordea, bere forma zorrotz-laburrean. Mamia zeukan eta dauka. Eta mamiarekin, xarma.

Idazle-idazle baten senak oso berea du arropa egokia bilatzea esan nahi duenari. Harkaitz Canok manifestu baten forma ematea erabaki zuen eskaintzari.

“Bost urtez behin manifestu bat idatzi behar da ekilibrio hormonalari eusteko”, esan zuen Harkaitz Canok Elgoibarren, manifestua lehen aldiz irakurri zuenean.

Kontu jakina da euskararen gaiak sarri eragiten dituela debateak, urtikaria eta baita haserreak ere, baina kaos hormonal probokatzen duenik, ez nuen entzuna. Orain badakigu, Harkaitz Canok esanda, manifestuak onak direla obsesioak arintzeko, disfuntzio erotikoak neutralizatzeko, somatizatzen dugun beste hainbat flakia eramaten ikasteko: aldian behingo eroaldirik, purrustadarik, uzkurraldirik, desadostasunezko manifesturik gabe, ez omen dago ekilibrio hormonalik, imajinazioari laguntzerik, pultsio artistikoari eusterik.

Azken finean eta hormonak hormona, Canoren manifestua irakurri eta gero, lasaiago nago pentsatuz euskal idazleok idazten duguna manifestu luze erraldoi baten kapituluak direla, euskarari diogun atxikimenduaren aldarri komun, publiko eta azken aurrekoaren aportazioak. Dotoreago —ponparekin— esateko: euskararen azkena ahal den gehien eta ahal den osasuntsuen luzatzeko eta luzatzeko ahalegin prometeikoa da gurea.

“Manifestu bat da zure garaiaren eta zure gizartearen Arrazoiaren aurka idaztea, leiho bat zabaltzea etorkizunera”, dio Mari Luz Estebanek Andrezaharraren manifestua poema-liburuan.

Canoren asmoa horixe izan da, leiho bat zabaltzea euskararen etorkizunari, baina,

horretarako, eraginkorrena da gizarte baten Arrazoiak beti eduki ohi dituen maskarak kentzen hastea bat bestearen atzetik. Baina idazten hasi zenean, Canok ez zuen Mari Luz Estebanen definizio bikaina ezagutzen, zeren Azken aurreko manifestuarekin hasi zenean Estebanen liburua argitaratu gabe baitzegoen.

Koska da izaki fisikoen erlojua eta ideien ordua ez datozela behin ere bat. Izaki fisikoen mundualdiak beti aurrera egiten duen bitartean, pentsamenduaren ordulariak atzera eta aurrera egiten du atergabe, ez dago pentsamendu bakarrik, joan-etorrien anabasan elkar bazkatzen dira eta itxuraldatzen: gogamenaren alde ausartenak aurrera egin nahi izaten du eta pentsamenduaren status quo burgestuak, aldiz, posizio bertan goxo bat bilatzen, ohartu gabe posizio bertan goxo egite hutsaren korronteak gero eta atzerago daramala pentsamendua, ajetu egiten dituela ideiak eta zahartu. Onenean, senak erdi esaten digu, ttanttaka eta lanbrotan, zer doan aurrera, eta zer atzeraka, baina benetan zaila dena da, ia ezinezkoa, espiritu garaikidea zein den jakitea; oraintxe bizitzen ari garenak zer nolako usaina eta jitea dituen asmatzea; une honetantxe arnasten ari garen baina nolakoa den ez dakigun aire berri ezezagunak zer dakarren antzematea.

Émile Zolak konpromisoaren ideia ekarri zuen literaturara J'accuse...! manifestuarekin. Tristan Tzararen Lehen Manifestu dadaistak zioen dada hitzak ez duela ezer esan nahi, horrela garbi utziz benetako literatura, arte on guztia bezala, ez dela ezeren maizter, ezta hitzen erabilera didaktikoarena ere, are gutxiago moralarena. Marinettiren Futurismoaren Manifestuak tradizioaren itzal luzea urratu zuen irudi metaliko distiratsuak sortuz eta futuroan jarriz bere proposamen estetikoaren tronpeteria eta ponperia guztia, eta esanez auto bat ederragoa dela Samotraziako Garaipena eskultura baino.

Euskarari buruzko manifestuek ere aurrekari puntakoak dituzte. Etxepareren manifestu literario batekin —euskarari aginduz jalgitzeko eta jalgitzeko plazara— jaio zen euskal literatura. Orduetik izan da han-hemen manifestutzat har daitekeen hainbat testu, esate baterako, Manuel Larramendiren Karta ederra Sebastian Mendibururi idatzia eta manifestu baten traza duena euskararen hainbat gaitz —ezjakintasuna, nork bere txokoko euskarari eustea, erdaren eragina eta beste— seinalatuz.

Baina, historia laburtu beharrak hartaratuta, egin dezadan jauzi hogeigarren mendera. Orduetik gaurdainoko manifestu ezagunena, Gabriel Arestiren Nire aitaren etxea bere laburrean. Lehen pertsonan ari da Aresti bertan: ez du inor

lotzen, bere burua baino ez, bere aldarriarekin. Euskaldunon belarrientzat ez zen eta ez da oharkabea pasatu nire deitzen diola aitaren etxeari. Gure egin genuen guk Arestiren aitaren etxea, poemak hain esaten baitu maisuki guk sentitzen duguna, baina, paradoxa ematen du, poetaren kontrako setakeria franko eta liskar galankiren erdian egiten genuen bat (Arestiren?) aitaren etxearekin: bat gentozen poeman esaten denarekin, baina poetaren pentsaera politikoak tirria ematen zion jende askori, poeta luzaz egon zelarik ezker-eskuinaren sutetarako zerrendetan.

Iragan mendeak eman zuen bete manifestu gogoangarri bat ere. Manifestu atzeratua deitu zion Joxe Azurmendi autoreak, baina testua oso aurreratua da idatzi zen garairako (1968): atzeratzen dena bizitzak zigortzen du, dio esaldi aleman batek, eta gurean atzeratua dena da euskaldunon herri gisako garapena historiak hartara derrigortua; atzeratua dena da euskara debekatua egon zela hainbat mendez; atzeratua dena da ezin dugula herri izan, nahiz “libre izan nahi dugun, zer kulpa daukat nik”, Joxe Azurmendik manifestuan dioen gisa.

Iragan mendeak eta mende honek bizkarrean daraman lehen bostenak eman dute testu bat baino gehiago ere euskararen inguruko manifestutzat har daitekeena. Azkenekoak aipatzeko: 2017an, Euskaltzaindiak eskatuta, Patxo Telleriak Ghero antzezlanari idatzi zuen eta Tartean konpainiak taularatu arrakasta handiz. Konpainiak dioen moduan, bederatzi istorio dira “euskararen planetaren inguruan grabitatzeko. Iaz, berriz, aipagai dudan Harkaitz Canoren manifestuaz gainera, seinalagarria da Aritz Gorrotxategik, Felipe Juaristik, Juan Ramon Makusok eta Pello Otxotekok ezagutarazi zuten Poesia eta pentsamendua izeneko manifestua, hamaika pieza laburrez osatua.

Aurtengo urtaroak berak ere eman ditu gutxienez bi: Iñigo Astizek Zu Naiz, Ni zara izeneko manifestua irakurri zuen aurten Zarautzko Literaturian, euskara presentean bizi eta gozatu beharraz, etorkizunak euskarari ekarriko (omen) dizkion deskalabruen paranoiari tati! egiteko gonbidapena eginez. Aurtengo urteak emandako bigarren aldarria, Mari Luz Estebanen Andrezaharraren manifestua. Interesgarria da, besteak beste, manifestuaren bizpahiru definizio zorrotz ematen dituelako bertan. Arestian emana dut bat, gizarte jakin baten Arrazoiari maskarak kentzearena. Hona beste bat: “manifestu bat da esanguraz bete nahi den aldarri bat”. Liburua ez da euskarari buruzkoa, baina testuak euskarri literarioa du, poema luze baten gisa emana dago aldarria, eta bertan egiten den andrezaharraren defentsa aise aplikatu dakioke euskarari ere: zahardadeagatik, nekeen zamagatik, azken ordua hurbil sentituz bizi beharagatik. Eta Mari Luz Estebanen manifestuko andrezaharrak bezala, euskara

ere, bizi osoan munduaren martxara egokitzen eta egokitzen jardun eta gero, hori ari zaigu esaten bere gorputz zahartutik:

“Bien bitartean [Hil artean] munduari beha jarraituko dut, zentzumen guztiak atzarri. Gerta dakidakeen izugarriena ez baita hiltzea, bizi bitartean inguruarekiko ernetasuna galtzea baizik”.

Hiru zatitan banatua dago Harkaitz Canoren manifestua. Idazleak mugimendu deitzen die, musika klasikoaren lehen etapako sonaten egitura dakarte gogora. Testuko hiru mugimenduak, musikan bezala, desberdinak dira elkarren artean, tonu eta erritmo aldaketa sarriak daude mugimendu batetik bestera, baina, aldi berean, elkarrekin dira.

Lehendabiziko mugimendua oso azkarra da eta jostaria, allegro vivace bat. Tonuagatik, errealitatearen tabernan idatzitako manifestu bat ematen du hasiera-hasieratik. Narratzailea ordenagailuaren aurrean jarri da manifestu bat idazteko bulkadak emanda, baina aurki desesperatu da ordenagailuko sistemarekin, zuzentzaileak zirtzildu egiten baitio idazten duen oro: ote hitza oteé bihurtzen du; baina, vayan; lekura, lokura; manifestu, manifesté; uzten unten... Ondorioa:

“Manifesté bat idatzi nahi nuke, baina ez dit unten sistemak”

Hitzen etengabeko zuzenketek idatzi nahi duenaren norabidea aldatzen diote narratzaileari, zuzenketen araberako bidean estropezuka doa testua, gatazkatsuak dira esan nahi denaren eta zuzentzaileak derrigortutako bideen arteko harremanak...

Hitzen, zuzenketen, moldaketa berrien txinpartek lehertzen dituzten suziriaren burrundara egundainoko batek hartua du testua. Becketten Godoten esperoan obrako pasarte luze samar bat, adituek Luckyren monologoa deitzen dutena, etorri zitzaidan niri gogora manifestua lehenbizikoz irakurri nuenean, seguru asko testuak daukan erritmo frenetikoarengatik; baita hitzetik hitzera bitarteko logika ez duelako edukiak ematen, zalapartak baizik; halaber, testua amaraun bat delako, zeinak harrapatzen eta menderatzen eta bil-bil egiten gaituen osoro.

Baina laburbilduko bagenu hainbestearainoko tarrapataren atzean —testuaren banbalinetan— dagoena, Harkaitz Canok bete-betean asmatu du zuzentzaile

automatikoaren metaforarekin: elebitasun diglosiko subrogatu batek bizi gaitu, menpekotasunaren birikekin hartzen dugu arnasa, hizkuntza boteretsuen eta euskararen arteko joan-etorria —sarriegitan etxe-galgarri dena— dugu errealitate eta horizonte. Praktikan, gure buruarekin ari garenean, edo hizketan, edo itzultzen edo idazten, euskaraz egiten dugun asko eta asko da itzulpen (kontabilizatuko bagenu zenbat, izutuko ginateke): itzultzaile kranealak gara, euskara asko-edo jakinagatik ezin dugu burutik apartatu erdara nagusien itzal zuzentzailea, erreferentzia, eredia. "Kate honek lotzen nau" kanta primeran datorkion egoera bat, alegia.

Idatzi nahi bada, ezin dugu saihestu beti galderak egiten jardun behar etengabea: "eta sistema antibloqueo de frenos?, nola kristobelen esaten da sistema antibloqueo de frenos? Literatura egin nahi bada, ezin ditugu baztertu erdara nagusietatik datozkigun kanonak, prezeptiba literarioak, begiradak, zirtzilkeria niminoenak.

Horren kontsolamendua, Sisifo modernoak ote garen, eta ez dago gaizki: Sisifo eta haren duintasuna meritu propioz daude —giza kondizioaren metafora nagusiak direlako— mito ederrenen Parnasoan.

Parnasotik haraindi eta infernutik hurbil samar behar duen larri-dei batekin amaitzen da lehendabiziko mugimendua:

"Houston, arazo bat daukagu! Deskonektatu autozuzenketa!"

Bigarren mugimendua:

Autozuzenketa 'buruzida' —hala adjektibatzen du Canok narratzailearen idazkuntza— deskonektatu diote narratzaileari, eta plazebo baten gisako tonu eta erritmo pausatuago bat hartzen du bigarren mugimenduak, andante tranquilo samarra, eta, zuzentzailearekin izan dituen harreman kaotikoak atzean utzirik, narratzaileak entzuleok interpelatzen gaitu: zein da ingelesez ikasi zenuten lehendabiziko hitza?, eta frantsesez?, eta italieraz?, eta halaxe beste hainbat mintzotan ere.

Galdera horien ifrentzuan beste bat dago, ordea, gaztelaniaz egin beharrekoa logikaren arabera: ¿cual fue la última palabra en vasco que olvidaste?

Eta euskarak berak? Zein izango luke galduko lukeen azken hitza?

Ez dakigu, noski, baina Harkaitz Canok hiru aukera jartzen ditu aditu apustularien ahotan: gaupasa, akelarre eta zulo.

Hiruak begiratu ditut hiztegieta.

“Gaupasa: No volver a casa hasta la mañana siguiente, tras desayunar. Típica del País Vasco (Diccionario de la farrá española).”

“Akelarre: Junta o reunión nocturna de brujos y brujas, con la supuesta intervención del demonio ordinariamente en figura de macho cabrío, para sus prácticas mágicas o supersticiosas. (Diccionario de la lengua RAE).”

“Zulo: Lugar oculto y cerrado dispuesto para esconder ilegalmente cosas o personas secuestradas. (Diccionario de la lengua RAE).”

Gaupasa, akelarre, zulo... Gaztelaniak bereganatutako hitzek euskararen (gure) irudi ‘sinpatikoa’ utzi behar diote etorkizunari. Aspalditik dator, ohituta gaude: orain mende dezente, euskararen existentzia gehien eta lehenen zabaldu zuen gizonak ere, Aymeric Picaudek, ez zituen oso dotore utzi gure gula eta basakeria. Nolanahi ere: Canoren hipotesian, gaztelaniak aspaldian bereganatutako hitz bat litzateke euskarak galduko lukeen azkena. Gaztelaniaren trofeo bat agian? Hizkuntza txit ahalguztidun baten eskuzabaltasuna ala errukia? Justizia patetikoa? Degluzio inperial ase ezinaren logika?

Hirugarren mugimenduak etorkizunari begira jartzen gaitu andante prestissimo erritmoan:

—Ehun hitz ikasi urtebetean, euskaraz. [...] Ehun hitz desfibrilatzeke. [...] Euskara ez da galduko dakigunok hitz egiten ez dugulako, ez dakitenek ehun hitz eder ikasteari uko egin diotelako baizik. Ehun hitz gutxi dira. Ehun hitz asko dira. [...] Ehun hitz, ofizioaren arabera. Ehun hitz, adinaren arabera.

“—¡TODO EL EUSKERA QUE SABE SIN SABERLO, SEÑOR PANADERO!”

Horra manifestuko proposamen laburra nik are laburrago emana:

—Erakutsi euskaraz dakizun apur hori, señor panadero, ez atzera egin, ez gara ba herritar, auzo, lagun eta, guztiaren gainera, demokrata? Zergatik galdetzen didazu beti dos baguetinas, ez izan lotsa, ez da hain zaila bi bagetina esatea. Gainera, bezeroak ez al du beti arrazoi?

Hirugarren mugimenduaren laburpen azkarrak garbi uzten du Canoren manifestuko narratzaileak non ikusten duen euskararen superbizentzia: okinaren eta okina bezalako herritar ez euskaldunen teituan:

“Ehun hitzekin ehundu daiteke hizkuntza bat”.

Eta, bide batez, egun hitzekin asko egin liteke okinaren mentalitatea aldatu aldera...

Azken aurreko manifestua du izena Harkaitz Canoren euskararen inguruko aldarriak. Zergatik azken aurrekoa? Hipotesi dezente egin daiteke horren gainean. Bakar batera ekarriko dut aukeren ugaritasuna (egia esan, ez dakit hipotesi bat den ala nire desideratuma): manifestua azken aurrekoa izateak esan nahi du etorri behar duela azkenak ere, eta asko estimatuko genuke egilea Cano bera izatea. Manifestua idazterakoan ez du ba buruan eduki azken hiztuna? Hortik aise segitzen da ondorioa: balizko azken hiztunak munduari utziko liokeen balizko manifestua darabil Canok buruan bueltaka.

Hala balitz, nire hipotesiak nobela posible bat dakar anuntzio. Ikusten ari naiz Harkaitz Cano azken mohikano baskoarena egiten azken hiztunaren larruan jarrita eta haren baitatik idazten balizko manifestua, agian nobela baten forma emanda. Patxo Telleriak 3000 urtean kokatzen du bere distopia. Hemendik zenbat urtera kokatuko luke Canok berea? Zein eta nolakoa litzateke azken hiztuna? Zein hizkuntzatan idatziko luke? Euskaraz, ezin, idatziak ez luke publikorik. Canoren alter egoak beretzat idatziko luke nobela, bere buruarentzat baino ez. Aldiz, nobela beste hizkuntza batean idatziko balu, demagun gazteleraz, Unamuno berpiztu batek garaipen-oihu arranditsu batez egingo liguke ongi-etorri Canori eta negozio honetan gabiltzanoi:

¡Ya era hora! ¡Bien venidos!

Distopia totala. Euskarak bere bukaerari buruzko nobela bat behar du ahal den azkarren.

Harkaitz Canoren manifestuak azken aurrekotzat dauka bere burua. Baina, aldi berean, bada enegarrena ere. Manifestu askoren artean, bat. Enegarrena. Beste bat euskararen historian; beste bat baino ez Babelek eman dituen manifestuen artean.

Gainera, enegarrena dela esateak lekarkeen ondorio etxe-kalte bat saihesten du Canok azken aurrekoa dela esanda: nork dauka enegarren manifestu arrunt bat irakurtzeko gogoa?

Cano ez da haririk gabeko puntadak ematen dituen jostuna. Azken aurrekoa dela esanda, testua indibidualizatu egiten da. Enegarrena izango da berez, baina azken aurrekoa dela esaten zaigu. Markatuta dago, zerbaiten esperoan jartzen gaitu. Vladimir eta Estragon gara Godoten zain.

Baina oraindik azken manifestua etorri ez denez, auzia da: Canok huraxe noiz idatziko egon behar al dugu (laster beteko da Canok aipaturako bost urteko epea, oreka hormonalaren errebisioa egiteko ordua!), ala zain egon behar dugu Kronosek euskararen azken ordua markatu eta Thanatosek sententzia exekutatu arte?

Canoren manifestuari ez zaio suspenserik falta: azken aurrekoari azkenak ematen baitio segida, bidezkoena litzateke Canoren azken manifestuaren zain egotea. Nik ez dut irakurtzerik izango: nirekikoak lehenago egingo ditu Thanatosek euskararekikoak baino.

Canoren manifestuan behin baino gehiagotan ageri da euskararen azken hitzuna sintagma, eta guri, nola ez, azken mohikanoa, Fenimore Cooper nobelako pertsonaia, etorri zitzaigun gogora: herririk gabe, etorkizunik gabe geratu da gizona, ezin dio bere tristura kontatu "bere buruari baino". Ezin dio bere buruari baino utzi bere eta bere herriaren ondasun behinekoenaren oinordetza.

Harkaitz Canok ere gauza bera markatzen du bere manifestuko azken hitzunarengatik, arrazoizko galdera baten bidez: "Hizkuntza bat noiz desagertzen da, azken hitzuna desagertzen den unean ala bat bakarra geratzen denean eta bakar horrek ezin dionean bere buruari baino hitz egin?"

Hizkuntza baten azken hiztunak “osotasun destolestua eduki behar al du?”, hori ere galdetzen du Canoren testuko narratzaileak. Alegia, hizkuntzaren azken hatsak nola eragingo lioke euskararen azken hiztunari? Eta eransten dut nik: agian, euskaldun zaharron imajinarioan, beti pentsatu izan dugu azken hiztunak euskara izan duela ama-hizkuntza; edo ez zaigu burutik pasatu pentsatzen jarri behar genuenik ere. Baina euskaldun berri bat balitz? Ama-hizkuntza gaztelania duen Don Benitotik etorritako igeltsero bat adibidez, edo ama-hizkuntza japoniera duen hiztun mahats-biltzaile bat? Urrats bat gehiago: ama-hizkuntza euskara duen balizko azken hiztunak eta ezein ama hizkuntzako euskaldun berrik galeraren sentiberatasun bera luke sustrai?

Nago euskaldun berri gehienek ama-hizkuntza euskara izan duen euskaldun askok baino gehiago sufrituko luketela hizkuntzaren galera euskararen azken hiztun izatea egokituko balitzaie.

Zer pentsatua ematen du.

Gonbidatuek idazle famatuarengan jarria daukate atentzioa. Atsegina da, jario ona du, anekdota atseginekin ziprizzintzen du bere jarduna... Bere liburu gehienak itzuliak daude ingelesetik beste hainbat hizkuntzara, aparretik aparrerara bizi da. Bere hizkuntzak ez dio arazorik ematen gama espresiboen aldetik, ez gramatikak ematen lanik. Ez du komunikazio arazorik izaten beste hizkuntzen kale eta plazetan. Denak makurtzen zaizkio, berak ez dauka makurtu beharrik.

Gonbidatuen artean idazle errumaniar bat dago, Norman Manea du izena. Tratu ona dute, idazle amerikarrak badu Maneak bere hizkuntzarekin dituen zalitasunen, arazoen, galeren berri. Bat-batean, idazle arrakastatsuak diotso, jende guztia, Manea barne, harrituta utzirik:

“Antzekoak gara, konturatzen ez bagara ere. Baina alde bat dago: zuk baduzu hizkuntza bat”. Norman Manea zurbil eta ma gelditu da entzundakoa sinetsi ezinik. Amerikarrak hizketan segitzen du: “Eroso bizi naiz, egia da, nire inguru amerikarreko hizkuntzan. Baina zuk zure hizkuntza daukazu, hor dago aldea. [...] Nire hizkuntza, akatsik gabea izanik ere, tresna besterik ez da. Nahi dudana egin dezaket hizkuntza horrekin, aitortzen dut. Baina zu zure hizkuntzarekin bat zara.” (Norma Manearen Huliganaren itzulerako pasarte bat neurera ekarria).

Euskaldunok negar asko egiten dugu euskararen etorkizuna aipatzen den aldiro. Harkaitz Canoren manifestuari, ordea, umorea eta ironia darizkio, esan nahiko baligu bezala badaudela egon bitartekoak malkoak bezain adierazkorrak; edo adierazkorragoak.

Umorea, ironia, absurdoa... Erregistro tonal horietan —bereziki ironiarenean— dabil Canoren pieza, baina Canoren umorea ez da txiste hutsa, ironia ez da moralizantea, absurdoa ere ez errealitatearen ukazio absolutua. Canoren ironia lejia da, errealitatearen orbanak azaleratu eta garbitzeko balio duen produktu eraginkorra. Ironiaren lejia, Canoren luman, inoiz ez da iristen arropa erretzera, eragiten duen ezinegona ukendua da eta ez asuna.

Umoreak, ironiari esker, ez dio indarrrik kentzen manifestuak salatzen duenari, manifestua ez da, inondik ere, mezu garbirik gabea. Mezuetako bat, agian nagusia eta argiena, “malkorik ez, arren!” litzateke, Canoren beraren Txalorik ez, arren! saiakera labur bezain finaren izenburua neurera ekarrita.

Jolasean dakien idazle bat da Harkaitz Cano. Serioa da.

Testuko ironiaz ari naiz. Bertako idazkuntza ez da ez neutroa ez neutrala. Bertan ageri diran erreferentziak ere ez. Harkaitz Cano gutxi irakurri duenak ere badaki Harkaitz Canorena dela manifestuko ahots hori. Idazle batentzat sari ederra da, agian ederrena, testu bat usaindu orduko irakurleak norena den jakitea.

Ahotsa deitzen zaio.

Manifestutik asko erakartzen nauena, geruzak dituela, manifestuen izaera tradizionala traizionatzeraino.

Manifestu bat aldarria da definizioz, statu quo jakin bat gainditzeko deia, eta forma asko har ditzake ...— arenga, perorata, sermoi, alegato, bando, disertazio, libelo, aldarrikapen, proklama, deklarazio...—. Forma bakoitzak bere tonu propioa du. Baina deitu modu batera zein bestera, baliatu tonu jostaria zein

solemnea, manifestu batek zuzen zehatza izan behar du, argia, zalantzarik eragiten ez duena, auziak garbi seinalatuko dituen jendea adoretzea helburu. Ez, aldarri bat ezin da egin zalantza barreiatuz, ezta mezua lausotuz ere xehetasunekin, ironiarekin, anbiguotasunarekin. Tradizioaren arabera, behintzat, hori da aldarri baten ezaugarrien motxila.

Hala ere, berriro diot: Canoren manifestutik asko erakartzen nauena, geruzak dituela. Aldarri bat geruzekin: oximoron bat da, kontraesan bat buruko soilgunetatik hanka-puntetaraino. Harkaitz Canok, ordea, geruzez gainezkatu du bere manifestua.

Aldarri bat tolesdurekin? Ba, bai: Canoren azken aurreko manifestuak leihoa zabaltzen dio interpretazioen anbiguotasunari. Baina zeren azken aurreko? Galderek-eta egiten dute eder, ez soilik benetako.

Euskararen errealitatean askotan eta askotara ematen da mentalismoa, gure buruaren indar hutsarekin errealitatea alda daitekeela sinestea. Euskaldunon kasuan, gure mentalismoa da euskararen egoera aldatu nahi izatea baina ezer gutxi eginez euskararen alde, ezer gutxi emanez euskarari. Garai batean Estatuko telebista bakarrean maiz agertzen zen Uri Geller mentalista bere begirada hutsarekin alpazko koilaratxoak doblatzen haiek ukitu ere egin gabe. Uri Geller koilaratxoekin nola, halaxe dabil euskaldun asko euskararen inguruan.

Canoren manifestuko ahotsak zortzi aldiz darabil mentalismo hitza testuan zehar. “Manifestu hau ez da mentalismo ariketa bat”.

Esaldiari dogmatikoegia iruditurik-edo, manifestuak zalantzan jartzen du esan berri duena:

“Tira, apur bat bai, manifestu guztiak dira mentalismo ariketa”, egiten du ziabogatxoa.

Beste hiru aldiz errepikatzen da afirmazioaren eta auto-zuzenketaren sekuentzia, manifestuak hirutan aitortzen du eszeptizismoa. Balirudike ahotsaren—Canoren beraren— asmoa ez dela mentalismoa egitea, manifestua zinez eraginkorra izatea baizik, baina ez du ematen oso seguru dagoenik hartutako lanak inolako fruiturik emango duen.

“Hizkuntza, hitzak, estiloa. Azken ehun urteotan desagertu dira inoiz entzun edo irakurri ez ditudan hizkuntzak. Beti piztu dit jakin-mina hizkuntza baten azken hiztunen heriotzak. Zer gertatzen da halakoetan? Zein de beren azken pentsamendua? Imajinatzen ditut hitzak une batez flotatzen hildakoaren gainean, kontzientzia guztiarekin ez direla lurrera itzuliko. Pentsamendua espresatzen da hizkuntzan ere. Nolakoa ote da pentsatzea inork inoiz gehiago entzungo ez dituen hitzekin?” (Cees Nooteboom, 533 egun).